

## ERREKALDEN

**A**uzoko preso baten amak eta AEK-ko partaide batek egindako pregoiarekin atzo hasi ziren Errekalde auzo bilbotarreko

jaiak. Datorren asteko igandera arte egunero egunero hainbat ekitaldi izango dira; umeentzako jolasei eta futbito txapelketari leku berezia egingez.

## Erreka-tartalo hamaika egunetako jaien buru jarri dute auzotarrek

INAKI BASTARRIKA / ERREKALDE

Gaurko ekitaldien artean eskuz binakako pilota partidua jokatu da 11.00etan. Ordu berean Errekaldeko plazan tiragoma txapelketa egingo da begirik zorrotzena nork duen jakiteko. Eguerdi inguruan xakean aritzeko aukera izango da eta arratsalde partean 17.00etatik aurrera umeek nahikoa jolas egiteko, plazara inguratzea besterik ez dute; jaiegunetan egunero jolasak gertu izango dituzte arratsaldeetan Errekaldeko plazan. Arratsaldean mahai bat jarriko dute plazan norberak jaietarako bere txapa margotu dezan. Erreka-Tartalo begi-bakarra egin dute auzoko jaien pertsonaia nagusi eta aurreantzean jaietako sinbolo izan dadin nahi dute jaietako antolatzaileek.

Arratsaldeko 6.30etan Mertxe Roel-ek zuzenduriko baletak dantzatu du plazako kioskoan, ondoren igel txapelketa eta estrainekoz aurtan goitibehera jaitsiera egingo da 20.00etan Iberduero partetik Ordoniz kaleraino. Arratsean Zoroak txarangak alaituko ditu kaleak eta Andromeda taldearekin erromeria egingo da.

Bihar goizez oztopo lasterketan aritzeko parada izango dute auzoko koadrila eta talde desberdinek. Futbito txapelketa 12.00etan hasiko da eta eguneko bereizgarri arratsaldeko zortzietan egitekoa den txapel jaurtiketa izango da. Gauz kale zinema ikusgai dago inguratu nahi duenarentzat.

Astean zehar egunero hainbat jolas eta ekitaldi egingo dira, umeen jolas eta futbitoaz gain astelehenean koadrilen arteko futbol partidua jokatu da bost atezainekin, hau gauza xebea! Koadrilen arteko indar neurketa soka-tiran egingo da larunbatean 19.30etan. Ondorengo ikuskizuna berezi berezia izango da antolatzaileek ira-

**Datorren larunbatean Euskararen Eguna ospatuko da, artisauen erakusketa eta euskal herri kirola ikusgai izango dira besteak beste**

garri dutenez. Plazan borroka greko-erromatarra egingo dute Bizkaiko Federazioko partaideek.

Tortila egiteko trebezia erakutsi nahi duenak astelehenean 20.00etan duen aukerari ezin dio joaten utzi. Zeinek jana izango da seguru asko! Gauerdian kaleko zinema emango dute. Ostegunean Danba eta Tripustela taldeek rock emanaldi ederra eskainiko dute 23.00etatik aurrera. Ostiral arratsalde guztian zehar errepresioaren aurkako argazkiak erakutsiko dira eta Hotsa taldearekin dantza egin nahi duenak hamaiketarako inguratu behar du plazara. Gauerdian amnistiaren aldeko kalejira egingo da suzko zezenaren aurrean jarri baino lehen.

Larunbatean euskararen eguna ospatuko da eskaintza ugarirekin. Egun osoz artisauen erakusketa ikusgai izango da; goizez pilota partidua eta jota txapelketa. AEKren txoznan 13.00etatik aurrera makailu tortila prestatuko dute; sagardoak dohai-nik egingo du zintzurran behera. Herri kirolak era izango dira arratsalde partean. Gaueko dantzaldia Tturruttak taldeak alaituko du; gauerdialdera koadrila eta auzoko taldeek mozerro txapelketa parte hartuko dute.

Festazaleei min gutxi egingo lieke aurtengo jaien bukaerak, 23.00etan autobus bat Iruñera bidean jarriko balitz, joan zen urtean iragarri bezala.

Jai Batzordekoek Iruñerako autobusa jarriko zela iragarri zuten iaz maliziarik handienarekin eta jende multzo bat inguratu zen ordurako plazara. Gezurtero onak



JOSE SIMAL

Bilboko auzo handi eta berria da Errekalde. Kotxez beteriko kale estuegi eta etxetzarrez josia. Autopistako zubi azpian bizi den auzoa.

dira erakutsi dute alproja hauek; aurtan joan nahi duenak bere kontura egin beharko du bidaia, antolaturiko bidaiei jaramonik egin gabe. Ondo pentsatutako txantxa alajaina!

### Egun pasa Sestaon

11.00etan eskuz binakako pilota partidua frontoian.  
17.00etan umeentzako jolasak plazan.  
17.45etan Erreka-Tartaloa margotuko da txapelketa.

19.00etan igel txapelketa.  
20.00etan goitibehera jaitsiera Iberduerotik Ordoniza.  
20.30etan Zoroak txaranga eta Andromedarekin erromeria.

**ERREKALDEN ERREKA TARTALOA.** Ostiralean hilak 28, jaienasieran, margoak eskura jarriko dituzte antolatzaileek, norberak jantzia eransteko txapan Erreka-tartaloa nahi duen moduan margoz dezan. Erreka-tartaloak aurreantzean Errekaldeko sinbolo izan nahi du.

**FUTBITO ATEZAINEKIN.** Astelehenean koadrilen arteko futbito partidua bost bostekok jokatu dute bost atezain eta beste hainbeste atezainekin zela berean. AEK eguneko sortu zen ideia berri hau eta egundoko arrakasta izan zuen. Jokaldiak ikusgarriak dira. Inguratu ikustera!

**EGIN EZEZU NAHI DUZUNA.** Hurrei ostiralean, uztailek 5, parke berezi bat jarriko zaie euren gozamenerako. Gero kioskoan haur bakoitzak abestu, txisteak kontatu, antzetzatu, hots, nahi duena egingo du.

**EUSKAL HERRI KIROLA.** Larunbatean, uztailek 6, eguerdiko orduetatik aurrera herri kirola ikusi nahi duenak plazara jo dezala. Hurrek ere herri kirol zirkuitoa dute, harrijasotzea, koskol biltze eta lasto fardo altzatzearekin.



**LA UNION Y EL FENIX**  
*Zulakorik ez dago inor; Ez egiozu ezeri uko; bizi ezazu ona dena! "La Unión y el Fenix"-ek lagunduko dizu behar duzunean, ziur!*

Gordoniz, 76 Tfna.: 421.04.85  
48002 BILBO Faxa: 421.36.80

**ERREKA GORRI JAIK BAI**

**BORROKA ERE BAI**  
**NEGOZIAZIOA**

**TABERNA ENDIKA**

*Gure bezero eta lagunei festa on!!!*

Rekalde plaza, z/g. 48002 BILBO  
Tfna.: 444.65.60

**æek**

*Emaiozu uda euskarari!*

**ARRAITZ EUSKALTEGIA**

Gordoniz 93bis-1.C  
ERREKALDE.BILBO  
Tfna.: 443.59.80

**MATRIKULA ZAITEZ**

**VINOS MEDRANO, S.L.**

**GAZTELONDOKO ALONDEGIA**

*Pompelle ardo gorri agujazkoa*  
*Viña Severina Cigales ardo gorria*

Tfnak.: 421.59.36 / 421.59.06 REKALDEBERRI 48002 BILBO